

IRAUNKORTASUN HEZKUNTZARAKO ESKULIBURUA

Posted on 05/02/2010 by Naider

Gaur ideien baratzen, gomendio-landare bat dut zuentzat!



Lehenengo Ostegunean izandako ["Naider Topagunean"](#) Energía eta Klima Aldaketari buruz **Josu Sanz, Iván de Torres** eta **Gorka Bueno**ekin hitz egiteko aukera izan genuen. Solasaldi interesgarria izan zen, eta bertan Josuk, [Unesco Etxe](#)ko ingurumen arduradunak, [Iraunkortasun Hezkuntzarako Eskuliburua](#) helarazi zigun.

Atzo arte ez nuen begirada bat botzako aukerarik izan, baina irakurtzen hasi eta gero, lan ederra zela argi geratu zen.

Hemeretzi gaietan banatutako, iraunkortasunari buruzko oso ikuspegi orohartzailea du. Gai honi buruzko beste liburu askotan bezala, ez da bakarrik ingurugiro eta ekologia gaietan gelditzen, giza garapenean, ekonomian eta politikan ere murgiltzen da, ikuspegi handiago eta aberatsagoa emanez.

Gai bakoitza **aditu** batek idatzitako eta marrazki eta grafiko betetako bi orrialdeetan azaltzen da, irakurtzeko erraza eginez, eta sakondu nahi izanez gero erreferentzia interesgarriak dituelarik. Iraunkortasun hezkuntzan lan egiten duen, edota iraunkortasunari buruzko kezka duen edozeinetzako **gomendagarria** den eskuliburua da

Nire iritziz, iraunkortasun arazoetan hezkuntzak duen garrantzia ikaragarria eta askotan ez zaio behar duen pisua ematen. Horrelako lanen laguntza ezinbestekoa da gure ingurugiroari buruzko ideiak eta kultura onera aldatzeko!! Eskerrikasko [Unesco Etxe](#)ari, horrelako lan bat **euskeraz** erabilgarri egiteagatik, eta gure Topagunean parte hartzeagatik!

There are no comments yet.